






Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-aren kontzeptualizazioa eta gobernantza-eredua Euskadirako








ILAB-ERANTZ!

**partaidetzan berrikuntzak sartzeko laborategiaren
diseinu bateratua Euskadirako**

partaidetzan berrikuntzak sartu

parte hartuz berrikuntzak sartu

sarean berrikuntzak sartu



3. KONPROMISO-TALDEAK (aurrerantzean, 3KT) egindako lana laburbiltzen du agiri honek, kontuan hartuta 2018ko urritik 2020ko otsailera bitartean egindako 9 bilerak. Prozesu honetan elkarlana izan da oinarria. Hala, 3KT osatzen duten pertsonen ikuspegi desberdinak jaso dira, bai eta herritarren iritzia ere, nola galdetegiaren bidez, hala 2019ko ekainean egindako **Foro Irekiaren** bidez.

Agiri hau idazten lagundu du, ilab-en kontzeptualizazioa ezartzeko orduan, ColaBoraBora Koop izeneko taldeak, ilustrazioak, azalpen-eskemak eta kasu-azterketa baliatuta, eta, lan horretan lagundu du, era berean, Arantza Mendihaitek. Gobernantza-ereduaren atala, bestetik, Tipi Gara taldeak idatzi du, eta hura arduratu da, halaber, sortze bateratuko saioak dinamizatzeaz.

Prozesuaren kontakizungrama (4., 8. eta 10. orriak) Alberto Murielek egin du.

3KT pertsona hauek osatu dute osatu duten pertsonak honako hauek izan dira: Ana Viñals; Diana Franco; Arrate Arias eta César Rodríguez, Arabako Foru Aldunditik; Beatriz Acha eta Itziar Solozabal, Bilboko Udaletik; Jonatan Moreno eta Maitane Leizaola, Bizkaiko Foru Aldunditik; Danel Alberdi, Coach And Play-tik; Jon Abril, Elhuyarretik; Mikeldi Zeberio, Emunetik; Javier Bikandi eta Koldobike Uriarte, Eusko Jaurlaritzatik; Itziar Calvo, Joseba Muxika eta Miren Arbelaiz, Gipuzkoako Foru Aldunditik; Arrate Echezarreta eta Olatz Jiménez, Hirukidetik; Antxon Gallego, Ibatuzetik; Goizalde Atxutegi eta Gotzon Bernaol, Innobasquetik; Diego Fernández, Kualitate Lantaldetik; Aitzol Batiz, Kultibatik; Marixe Noya, Orekatik; Mikel Barturen, Sareen Saretik; Elsa Fuente, UNICEF Euskaditik; Xabier Barandiaran, UPV-EHUtik; eta Nerea Ollokiegi, Zarauzko Udaletik.

Edukia **creative commons cc by sa** lizentziaren pean dago.



1

¹ Lizentzia honi esker, lana nahastu, egokitu eta garatu dezakete beste batzuek, baita merkataritza-xedeetarako ere, baldin eta hala egiaztatzen badute eta beren sorkuntza berrien lizentziak ematen badituzte, baldintza berberetan.



AURKIBIDEA

1 LAN-ESPARRUA.....	7
2 METODOLOGIA ETA EMAITZAK.....	8
3 ILAB-EN DEFINIZIOA ETA HELBURUAK.....	10
4 PRINTZIPIOAK ETA IRIZPIDEAK	12
1. Ilab-en printzipioak	12
2. Ekintzarako irizpideak	13
5 SAREKO ERKIDEGOAREN DESKRIAPENA-ZELAN GOBERNATZEN DEN.....	15
1. Gobernantza-eredu jarraitua	16
2. Nola parte hartu sarean	17
3. Parte hartzeko espazioak	22
4. Kontu-ematea eta gardentasuna	29
5. Nondik hasi.....	30
6 BALIABIDEAK	31
7 ZERBITZUAK	32
I. ERANSKINA-ZELAN EGITEN DUTE. Laborategi, programa eta sareen beste esperientzia batzuetatik ikasiz.....	32
II. ERANSKINA. PROZESU KOLEKTIBOETAN ROLAK BANATU ETA ERABAKIAK HARTZEKO METODOLOGIAK	32
III. ERANSKINA. ILAB-EN ZERBITZU POSIBLEEN ZORROA	34
1. Azterketa	35
2. Esperimentazioa.....	36
3. Transferentzia	37

1 LAN-ESPARRUA



OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planeko 3. konpromisoa da proiektu honen esparrua. Erronka, hain zuzen, Euskadin ilab bat martxan jartzea da; zehazki, partaidetzan berrikuntzak sartzeko laborategia. Eusko Jaurlaritzako Herritarren Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziako Berrikuntza Publikoko Unitateak sustatutako konpromisoa da.

Erronka honako hau da: **“laborategi bat sortzea ikerketak egiteko, entseguak egiteko, ikasteko eta elkarrekin konponbide zehatzak eta erabilgarriak bilatzeko. Lan-espazio egonkor bat garatzea erakundeentzat eta herritarrentzat, partaidetzan berrikuntzak aurkitzeko eta partaidetzaren mugak eta lorpenak mahai gainean jartzeko. Zintzotasunetik eta zehaztasunetik abiatuta, Euskadin herritarren parte-hartzea sustatzeko zerbitzuak eta prozedurak sortu nahi ditugu. Eraitza ez ezik, prozesua ere kontuan hartuta, eta Euskadiko jende askoren bakarkako edo taldekako partaidetzaren balioa aitortuta”**.

Erronka hori ebazten laguntzeko, Ekintza Planean bertan honako **helburu** hauek zehaztu ziren:

- Lankidetzan (erakundeen artean, erakunde eta herritarren artean, etab.) landu beharreko arazoak adostea.
- Parte-hartzeari buruzko ikuskerak batzea, aniztasuna (ideologikoa, politikoa, etab.) bermatuta.
- Konfiantza handiagoa eraikitzea eta gardenagoak izatea, modu etikoan lan eginda.
- Hobeto koordinatzea eta ahaleginak parte-hartzean batzea.
- Esperimentatzea eta aldi oro aldatzen ari den errealtatera egokitzea.
- Parte hartzeko kanal, metodo, tresna eta eredu berriak –malguak eta eguneratuak– probatzea.
- Horien erabilera zabaltzea eta sustatzea, gure ingurunean eta erakundeetan benetako aldaketa sortzeko.




2 METODOLOGIA ETA EMAITZAK

Erronka bat lortzeko jorratu beharreko eginkizunetako bat honako hau da: **ilab-en ereduaren kontzeptualizazioa ezartzeko proposamena eta haren gobernantzarako eredia** zehaztea, sortze bateratua baliatuta, OGP Euskadiko 3KTn 9 lansaioetan zehar garatu diren eztabaidak eta sortu diren ideiak kontuan hartuta. Konpromiso-talde horretako kideak 28 dira: gizarte zibileko pertsonak, agente adituak eta maila instituzional desberdinetako ordezkariak. Horrez gain, herritarren iritzia ere jaso da, alde batetik, galdetegi baten bidez, eta, bestetik, ekainean egin zen Foro Irekiaren bidez. Hala, prozesu honen gaineko ikuspegia aberastu ahal izan da.

Diseinu bateratuaren prozesua, zehazki, Konpromiso Taldeko kideei zuzendutako galdetegi batekin hasi zen. Prozesuaren zatirik handiena hainbat lan-saiotan egin da, elkarrikeria, sortze bateratua eta aukera-azterketa bezalako metodologietan oinarrituta. Hala, erronka horren garapenean inplikaturako agenteen aukerei eta konpromisoei jarraikiz adostutako proposamena findu da. Halaber, apirilaren eta maiatzaren artean, interneten deialdi bat egin zen, ilab-en lehen esperimendu gisa garatu beharreko proiektu pilotuen irizpideak zehazteko. Deialdi hartan, herritarren 271 erantzun jaso ziren.

Gainera, kontzeptualizazio kolektiboko prozesua aberasteko, **“¿CÓMO LO HACEN?” (ZELAN EGITEN DUTE?) deritzan kasu-azterketan** jasotako esperientziak erabili dira. Azterketa hori agiri bereizi batean jaso da (ikus I. eranskina), eta, bertan, tokiko, Estatu-mailako nahiz nazioarteko

laborategi, programa eta sareen 22 erreferentzia bildu dira. Agiri honetan zehar, aztertutako kasuetako batzuk jasotzen dira, bai eta horien inspirazio-elementu nagusiak edo transferitu daitezkeenak ere.



2019ko ekainaren 20an, Foro Irekia egin zen, eta, bertan, 80 lagunek parte hartu zuten. Foro hori baliagarria izan da proposamena egiaztatu eta azken doikuntzak egiteko, bai edukian, bai forman eta hizkuntzan.

Kontzeptualizazio-proposamen sinple eta sintetikoa da emaitza. Halaber, lagungarria izan da gobernantza-eredua zehazteko edo haren ezarpenerako behar diren baliabideak finkatzeko erabakiak hartzeko orduan, bai eta martxan jarritako 4 pilotuen bidez zehaztasunetara jotzeko eta bideragarritasuna egiaztatzeko ere.

Ilab-en gobernantza-eredua definitzeko, laborategiaren kontzeptualizazioa ezarri ahala egin behar izan da lan. Hartara, zer eta nola galderen arabera eman zaio forma gobernantzari, eta, alderantziz. Horrenbestez, ilab-en antolakuntza posiblearen gaineko lehen zirriborroa egin ondoren, fokua ireki da, eta beste proiektu batzuetako gobernantza-ereduak aztertu dira, inspirazioa eta erreferentziak bilatzeko. Hala, eredu horien alderdi interesgarriak gure ilab-en aplikatzeko aukerei buruz hausnartu ahal izan da. 3. konpromisotik gertu dauden agente eta

herriarrei prozesua zabaltzeko, Foro Irekian oinarritzko aukera batzuk planteatu dira, gobernantzaren forma zehazten hasteko. Aukera horiek, zehazki, parte hartzeko moduari, erabakiak hartzeko espazioei, eta gardentasunari eta kontu-emateari buruzkoak izan dira. Ondorioz, azkenean, 3KT berak sakondu eta zehaztu ditu alderdi zehatzak 3 multzo hauen gainean, honako eduki hauek garatzeko, besteak beste: sarean parte hartzeko baldintzak; agente-mota bakoitzaren onurak eta konpromisoak; parte hartzeko espazioak; edo sortutako ezagutza komunikatu eta helaraziko dela bermatzen duten mekanismoen izaera.



3 ILAB-EN DEFINIZIOA ETA HELBURUAK


Ilab-a (baliteke PARTE! izena hartzea) Euskadiko partaidetzan berrikuntzak sartzeko laborategia da. Sareko erkidego moduan funtzionatzen du, eta, hala, hura osatzen duten agenteek printzipio eta konpromiso zorrotz batzuk partekatzen dituzte ikerketan eta esperimendazioan, ikaskuntzan eta lankidetzan erantzukidean, eta transferentzia sistematizatuan.

Ilab-en oinarria PARTAIDETZA da (Gobernu Irekiaren ardatzeko bat, gardentasunarekin eta lankidetzarekin batera), eta, horretarako, ikuspegi askotatik jorratzen du gaia:

- Demokrazia sistema politiko gisa hobetzeko partaidetza.
- Legeak, planak eta zerbitzu publikoak hobetzeko partaidetza.
- Lankidetzan publiko-sozialetatik erronka desberdinak jorratzeko partaidetza.

Ilab-en helburua PARTAIDETZAN BERRIKUNTZAK sar daitezela sustatu eta indartzea da, eta, horretarako, **elkarrekin lotuta dauden hiru eremutan oinarritzen da: ezagutza eta esperientzien azterketa, esperimendazioa eta transferentzia.**

- **AZTERKETA**, antena eta radar izateko, sortze berriei adi egon eta joerak identifikatzeko, arazo zehatzak sakondu eta bide berriak ikertzeko, etorkizuneko eszenatokiei aurrea hartu eta probatzeko... Eta, hori guztia, modu irekian, inklusiboan eta partaidean, inteligentzia kolektiboari balioa emate aldera.
- **ESPERIMENTAZIOA**, pilotu eta prototipo zehatzak garatzeko, alde batetik partaidetza hobetuko duten tresna, metodologia eta prozeduren diseinua eta erabilera sustatu, eta, bestetik, eremu eta ezaugarri desberdinetako erronketan aplikatu beharreko irtenbideak ezartze aldera. Eta, hori guztia, arrisku kontrolatuko baldintzetan (ziurgabetasuna hobeto kudeatzeko) esperimentatuz, proposamenak benetako testuinguruetan probatzeko, prozesua bera ikaskuntza-iturri izan dadin. Esperimentuetan, herritarren, teknikarien eta adituen, interes-taldeen nahiz erabaki-agenteen lankidetzak lortu nahi da, interesak uztartu eta erronkak taldean jorratzeko, ikuspegi, ezagutza, esperientzia eta beharrian desberdinak kontuan hartuta.
- **TRANSFERENTZIA**, orientazio bikoitzarekin: 1) laguntza ematea, partaidetzan berrikuntzak sartzeko prozesuak garatzeko baldintzak ahalbidetze aldera, entzun, aholkuak eman eta erraztasunak jarrita, eta 2) azterketaren eta esperimentazioaren prozesuak nahiz emaitzak ebaluatu eta sistematizatzea, horiek mailaz maila igo edo beste testuinguru batzuetan errepikatzeko aukera bilatze aldera. Eta, hori guztia, agenteak konektatzen, ekintzak egituratzen, proiektuen garapenean zorrotasuna zaintzen, metodologia komenigarrienak ezartzen, baliabideak partekatzen, prozedurak kualifikatu eta sistematizatzen, arriskuak neurtzen...laguntzeko.



BERRIKUNTZA da ilab-en jomuga. Horrenbestez, EAEko testuinguruaren jatorrizko baldintzei erantzungo die berrikuntzaren dimentsioak (betiere, gaiak nazioartean duen egoera kontuan hartuta). Kasu bakoitzean **berrikuntza zer izan daitekeen** baloratzeko, honako faktore hauek har daitezke kontuan:

- Kasuan kasu jorratu beharreko gaiaren gaineko eskumen- eta erantzukizun-maila desberdinak.
- Gaiaren edo testuinguruaren garapen- edo heltze-fasea, eta balio diferentzialak aurretiazko irtenbideen gainean egiten duen ekarpena (bai prozesuetan, bai emaitzetan).
- Inplikatura dauden edo jorratu beharreko gaiarekin lotuta dauden agenteen mota (beren izaera, ezagutza eta esperientzia, gaiaren gaineko lotura edo/eta inplikazioa eta abar).
- Partaidetzaren dimentsio kualitatibo edo/eta kuantitatiboak, bereziki azpimarratuta dibertsitatea, agentzia-aniztasuna eta lankidetzak.
- Partaidetza-inguru fisikoen edo/eta digitalen espezifikotasuna edo hibridazioa.
- Irtenbideen gaineko probak edo ezarpena, eskala inkrementaletik edo disruptibotik.
- Berrikuntzaren ekarpenak eta ezarri beharreko metodologia eta prozeduren erabilgarritasuna eta eraginkortasuna.
- Eremu dibertsifikatueta, irekiago edo mugatuagoetako, jeneralista edo espezializatueta, deslokalizatu edo kokatueta...esku-hartzea. Helburu hori konplexua da, eta erakundearen lidergoa sendoa eskatzen du, bai eta lankidetzako ikaskuntza eta ibilbide luzeko prozesua ere. Hain zuzen ere, ibilbide hori Lehendakariak bidalitako baterako hautagaitzarekin hasi zen, eta 2018-2020 epealdiko ekintza-plan hau batera sortzearekin aurrera jarraitu du; ekintza-plana prestatzea erakundearteko lehenengo apustua izan da, ondoren, apustu hori apurka gauzatzeko plana inplementatu eta ebaluatzeko, eta, geroago, planifikatzeko.

4 PRINTZPIOAK ETA IRIZPIDEAK

Helburu komun batez gain (partaidetzaren berrikuntzak sartzea kasu), ilab-en sarearen parte izan nahi duten agenteek printzipio eta irizpide jakin batzuk partekatu behar dituzte. Hala, gutxienezko izendatzaile komun izango dira oinarri horiek.

1. Ilab-en printzipioak

Ilab-ek jarraitzen dituen printzipioek, zehazki, hari izaera ematen diote, erkidegora sartu nahi duten agenteentzako atxikipen-esparru bat ezartzen laguntzen dute, eta helburuak betetzeko modua bideratzen dute.

Printzipio horietako asko lehendik ere adierazita daude OGPreko Gobernu Irekiaren Adierazpenean eta Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian. Honako hauek dira, besteak beste: **irisgarritasuna, irekiera, lankidetzak, eraginkortasuna, efizientzia, ekitatea, etika, osotasuna, partaidetza edo gardentasuna.**

3KTren sortze bateratuko prozesuan esangura berezia hartu duten beste printzipio batzuk ere egon dira; hona hemen:

- **Dibertsitatea eta inklusitatea** (bereziki erreparatuz inplikaturako agenteek modu orekatuan parte hartzen dutela kasuan kasuko gaian, askotariko ikuspegiak sartuz - generoa, adina, arraza, dibertsitate funtzionala, maila sozioekonomiko edo soziohezitzaileak, jatorria..., iritzi-askatasuna eta ikuspegi-aniztasuna sustatzeko).
- **Konfiantza, konpromisoa eta erantzukizun partekatua** (inplikaturako agenteetako bakoitzaren autonomiaz eta interdependentziaz).
- **Zorroztasuna** (hau da, profesionaltasuna, zehaztasuna, arreta eta zaintza, baina, ez, ordea, zurruntasuna).
- **Ausardia** (probatzeko adorea, arrisku kontrolatua, porroten zigorrak eza... akatsetatik ikasteko).
- **Testuinguru bakoitzera egokitzen den espiritu malgu eta irekia.**
- **Izaera aske edo irekia duen filosofiaren** aplikazio eraginkorra (teknologia libreen erabilera, kodearen irekiera, "zelan egiten da", trazabilitatearen gaineko erraztasuna, baliabide partekatuen ekoizpena eta erabilera...).
- **Ongizate orokorrera eta balio publikoaren sorrerara bideratutako orientazioa.**

Balio horiek Konpromiso Gutun edo antzeko batean finkatu ahalko lirateke, atxikipena egiaztatzen duen zigilu edo marka batekin (printzipio horiek betetzen direla kontrolatu eta jarraipena egiteko baldintza jakin batzuen arabera).


2. Ekintzarako irizpideak

Aurreko puntuan azaldutako printzipioez gain, esparru komunaren barruan garatuko diren programak, esperimentuak, eta beste era bateko proiektu eta jarduerak lehenesteko baliagarria izan behar duen irizpide-zerrenda hartzen du oinarritzat ilab-ek. Irizpide malguak dira, eta ilab-en bilakaeraren arabera aldatu egin daitezke. Hasiera batean, 3KTren barruan zehaztu dira, herritarren partaidetzara zabaldutako interneteko inkesta baten laguntzaz (271 erantzun jaso dira).

Irizpide horiek honako hauek nabarmentzen dituzte:

- **Ekipo mistoen osaera** kontuan hartu behar da, mota desberdinetako agentez osatuta egon dadin (**INSTITUZIONALAK / ESPEZIALISTAK / SOZIALAK**), lankidetzaren publiko-sozialeko harremanen garapenean kualitatiboki eta kuantitatiboki aurrera egiteko eta konfiantza-mailak hobetzeko.
- Berrikuntzak sartu behar dira kontzeptualizazioan eta metodologian, ikuspegi aplikatu nabarmenarekin (argi izanda aplikatzeko gaitasuna erronka-motaren arabera dela, eta epe labur, ertain edo luzera bideratu daitekeela). Berrikuntza honela ulertu behar da: **lehenik existitzen den zerbaiten gainean balio efektibo, diferentzial eta kualitatibo positiboa eragin behar duena.**
- **Parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko moduak hobetu behar dira.** Erakundeek nahiz herritarrek (antolatuta egon nahiz ez) partaidetzaren gainean dituzten eskumenak gehitu behar dira. Ideiak asmatu, garatu, ezarri eta ebaluatzeko faseetan, sortze eta diseinu bateratuaren maila areagotu behar da (gamifikazioa -jolas-logikoen sarrera- da era honetako laborategietan geroz eta sarriago agertzen den joera).

- **Inplikaturako agenteen gainean ondorio eraldatzaileak sortu behar dira**, Administrazio Publikoei bereziki erreparatuta. Horretarako, jarduera-lerro berriak ezarri, araudiak aldatu, erregelamendu eta prozedurak hobetu, barruko oztopoak gainditzen lagundu, zeharkakotasuna sustatu, sailen eta erakundeen arteko lankidetzak indartu...beharko dira.
- **Herritarren ahalduntze handiagoa sortu behar da**, lidergotza bateratuko eta erantzukizun partekatuko kuota handiagoak lortzeko. Garrantzi berezia eman behar zaie normalean parte hartze ez duten horien irisgarritasunari eta inklusioari, hau da, ahotsik ematen ez zaien eta berdintasun-baldintzetan parte hartzeko oztopo gehien dituzten horiei. Eta, hori guztia, ez kuotak betetzeko, baizik eta aniztasunaren balioaren eta garrantziaren aldeko apustu sendoa egiteko.




- **Estrategian txertatutako elementua izan behar da komunikazioa**. Barneko komunikazioa (ilab osatzen duten agenteekiko) eta kanpoko komunikazioa (partaidetzan berrikuntzak sartzen dituzten beste agente batzuekiko eta, orokorrean, gizartearekiko) landu behar dira. Komunikazioa informatiboa, pedagogikoa, iradokitzailea eta bitartekoz gaindikoa izan behar da. Sakontasun-maila desberdinetakoa komunikazioa sustatu behar da, hainbat gako abiapuntu hartuta: sarbide unibertsala eta "irakurketa erraza", esaterako. Komunikazioa zeharkako geruza moduan ulertu behar da, honako helburu hauek lortzeko: partaidetza sustatzea eta landutakoaren gainera enpatia areagotzea (bai arrakastetan, bai porrotetan); prozesuen eta emaitzen gainera kontakizuna eta dokumentazio irekia

sortzea; edo esperientzia gizarte-sareen bidez zabaltzea, inplikaturako pertsonen talde nagusitik harago².

- **Ebaluazioan eta transferentzian pentsatu behar da.** Alde batetik, ondorioak identifikatu eta neurtu behar dira, honakoei erreparatuta: prozesuan zehar izandako ikaskuntzak; baliabideen eraginkortasuna eta hobekuntza; balioaren sorrera: emaitzak gizartean duen eragina; laborategiren iraunkortasuna; eta epe ertain eta luzean garatutako proiektuak. Bestetik, kontzeptuaren eta metodologiaren diseinua bera abiapuntutzat hartuta, irekiera, gardentasuna eta trazabilitatea bermatu behar dira, egindakoa mailaz maila igaro eta transferitu ahal izateko.

5 SAREKO ERKIDEGOAREN DESKTRIBAPENA-ZELAN GOBERNATZEN DEN



Sareko erkidego moduan antolatzen da ilab-a. Sarea honela ulertzen da: agente autonomoen baina interdependenteen multzoa, agente horiek lurralde baten hedatuta daudelarik (kasu honetan, EAE osoan) eta interes komun baten gaineko informazioa, baliabideak edo/eta zerbitzuak partekatzen dituztelarik (kasu honetan, partaidetzan berrikuntzak sartzeko). Sareko erkidego honek lan-espazio eta – eredu arina, malgua eta banatua izan dezala lortu nahi da. Horren adibide izan daitezke Innovación Ciudadana sarea edo mota desberdinetako tokiko

² Komunikazio-formatuen gaineko erreferentzia on batzuk izan daitezke Bherrian sortutako bideo-pilulak, https://www.youtube.com/watch?v=zuolpVHPD3k&list=PL0Wn_huJdn6wm2Oz1QwvvnVJDe6HtSOE&index=2, edo LAAABeko komisariotza-bloga, <http://www.laabb.es>. Bai horiek, bai kontzeptualizazio-agiri honetan jasotako gainerako erreferentziak, **ZELAN EGITEN DUTE?** kasu-azterketaren parte dira. Azterketa hori, zehazki, OGP Euskadiren 3. konpromisoaren esparruko lan-prozesuaren baitan garatu zen.

ekimenak, partaidetzarekin eta lankidetzak publiko-sozialarekin lotuta daudenak; besteak beste, Bherria, Haurren Hiria, Q-epea edo Wikitoki³.

Kontua ez da, inola ere, ilab-a klub eksklusibo bat izatea, partaidetzan berrikuntza zer den zehazteko orduan helburu ikuskatzaile edo zehatzailea ezartzeko; aitzitik, **erkidego inklusiboa izan nahi du, eta, beraz, bere barnean bildu nahi ditu elkarrekin aurrera egin, esperimentatu eta elkarrengandik ikasteko apustua egin nahi duten agente guztiak**. Horrenbestez, ilab-ek esperimentazioa eta berrikuntza sustatzen lagundu behar du, harremanak bideratu eta testuinguruari arnasbidea emateko eta praktikarik onenei balioa emateko, azken horiek guztien inspirazio edo erreferentzia bilakatu daitezten.

Ilab-en gobernantza-eredua pertsonen partaidetzara zabalduko dena da. Partaidetza hori, zehazki, inplikazio-maila desberdinen eta partaidetza-espazio desberdinen arabera egituratzen du. Inplikazio-maila bakoitzerako, jasoko diren onurak eta hartuko diren konpromisoak planteatzen dira, eta partaidetza-espazio bakoitzari lan-eremu eta eragin bat esleitzen zaizkio. Balantza horrek oreka bilatu nahi du proiektuaren irekieraren eta lankidetzak lanak izango duen jarraitutasun-bermearen artean.

1. Gobernantza-eredu jarraitua

Proiektu konplexua dela eta hura garatzeko denbora eta baliabideak behar direla kontuan hartuta⁴, **gobernantza-eredu jarraitua** aktibatzea proposatu da. Hartara, hura sortzeko prozesuan dagoeneko parte hartzen ari diren agenteekin lan egiten hasi ahal dugu.

Denboran iraunkorrak diren mekanismoak bermatu nahi ditugu, proiektuaren eskakizunen arabera egokitu eta hobetu ahal direnak. Ondorioz, “Eredu jarraitua” deritzan atal honetan, gobernantza-eredu osoaren ezaugarrien deskribapen zehatza egin da. Bestalde, “Nondik hasiko gara?” atalean, eredu hori ezarri eta frogatu ahal izateko mekanismo batzuk aktibatzeko gutxienekoen proposamena aurkituko dugu.

Eredu ireki, dinamiko eta lankide horrek honako **printzipio** hauek betetzen ditu:

- Ekitatea
- Gardentasuna eta kontu-ematea
- Efizientzia

³ Iberoamerikako sare bat da Iniciativa Ciudadana, eta 21 laborategik osatzen dute. Helburu nagusia esperientziak trukatu, ezagutzak transferitu eta erakundeetan berrikuntzak sartzea da, <https://www.innovacionciudadana.org>. Bherria: lankidetzak publiko-sozialetik topaketa, ikaskuntza eta berrikuntza sustatzeko espazioa da, eta Eusko Jaurlaritzak bultzatzen du, <https://bherria.eus>. Haurren Hiria: udalerrien sare bat da, ikaskuntza-giro osasungarri, partaide eta inklusiboak sustatzeko xedea duena eta Herrilaborategiak sustatu eta babesten duena, <http://www.haurrenhiria.eus>. Q-epea: kudeaketa aurreratuarekin konprometitutako Euskadiko erakunde publikoen sarea da, <http://www.qepea.eus>. Wikitoki: praktika lankideen laborategia da, eta hura osatzen duten agenteek autokudeatzen dute, <http://wikitoki.org>.

⁴ Ilab-ek prozesu hori abiarazi eta garatzeko eduki ahalko dituen baliabideak ezartzeko orduan, kontuan hartu behar dira honako hauek: pilotatze-egintzen emaitzen zioz sortzen diren azken kontzeptualizazio- eta gobernantza-ereduak, batetik, eta OGP Euskadi Planaren finantziario- eta lankidetzak esparrua, bestetik. Azken hori oraindik ere adostu beharra dute hura sustatzen duten erakundeek.


Hurrengo orrietan, hainbat alderdi sakontzen dira: kideak (nola parte hartu sarean), parte hartzeko espazioak, gardentasuna eta kontu-ematea. Hau da, ilab-en erabakiak hartzeko modua eta erabakion izaera zehazten duten alderdiak.

2. Nola parte hartu sarean

Ilab-en partaide izateko alderdi guztiak batzen dira atal honetan. Horretarako, bi eremu garatu dira: lehenengoan, zehatz-mehatz azaltzen da zeintzuk parte hartu ahal duten, eta, bigarrenean, partaidetza hori nolakoa izango den zehazten da, partaidetzaren onurak eta konpromisoak ezarri ahala.

Bai baldintzak, bai onurak eta konpromisoak inplikazio-maila desberdinen arabera zehazten dira; zehazki, **3 mailatan: agente eragileak, agente aktiboak eta agente ez-aktiboak.**

Nortasun propioa duen erakunde, instituzio edo pertsona-talde oro jo ahalko da agentetzat, osaera juridikorik behar izan gabe. Herritar ez antolatuek ere parte hartu ahalko dute ilab-en, eta, beraz, sarean sortzen den ezagutza eta informazioa jasotzeko eta eskuratzeko aukera izango dute. Hala, sarea garatzen lagunduko dute, baina agenteek dituzten lankidetzaren eta transferentzia-konpromisoak berenganatu gabe. Hori dela eta, ez dira sarean txertatutako kideatzat joko.



TIPOLOGIA de AGENTES : □ INSTITUCIONALES △ ESPECIALISTAS ○ SOCIALES
NIVEL de IMPLICACIÓN : ■ MOTORES ■ ACTIVOS ■ LATENTES

AGENTE ERAGILEAK

Ilab-a martxan jarri, garatu eta kudeatzeko orduan inplikazio eta konpromiso handiena duten agenteak dira agente eragileak. Osatzen duten taldeak denboran zehar iraungo duen konpromiso bat behar du. Talde horrek, ilab-en gertatzen den guztiaren gaineko ikuspegi orokorra du, bere agente partaideen arteko komunikazioa antolatzen du, proiektuak garatzeko aukera posibleen jakinaren gainean dago, eta ikerketa-prozesuak sustatu eta horietan parte hartzen du. Hau da, lotura izan behar du, nola etorkizuneko proiektuen aukerak jasotzeko, hala ilab-en barruan nahiz kanpoan lortzen ari den horren berri emateko.

Nortzuk izan ahal dira

Beren izaera dela eta, garrantzitsua da honako hau bermatzea: agente horiek ilab-en orientazio estrategikoa diseinatzeko laguntzeko ezagutza eta esperientzia eduki behar dute, eta harekiko konpromisoa hartzeko borondatea adierazi behar dute. Ondorioz, agente eragile batek honako hauek edukiko ditu:

- Aurretiazko esperientzia egiaztatua partaidetzaren eremuan, ahal dela berrikuntzarako bokazioa duten edo alderdi berritzaileak txertatu dituzten prozesuetan (jorratu duten gaiagatik, izan dituzten hartzaileengatik, erabili dituzten metodologiengatik, aktibatutako kateengatik, eta abar); edo/eta ikuspegi estrategikoko prozesuak lankidetzan garatzeko esperientzia.
- Agente eragileei esleitutako zeregin eta eginkizunak betetzeko konpromisoa eta gaitasuna.

Onurak eta konpromisoak

Agente eragileek, ilab-en partaideak direnez gero, aukera izango dute:

- Erabaki estrategikoak hartzeko orduan parte hartzeko, besteak beste ilab-en etorkizuneko ikuspegia (orientazio estrategikoa, lan-lerroak), sarearen iraunkortasuna eta agenda partekatua (edukiak, sarrera berriak) bezalako gaiak jorratze aldera.
- Ilab-en ordezkaritza gauzatzeko, haren kontakizuna, kultura eta ibilbidea transmitituz jardunaldi eta kongresuetan, bai eta hainbat erakunde eta entitateren aurrean ere. Kontakizun hori ilab-a osatzen duten agente desberdinen artean adostua eta onartua izateko ahalegina egingo da.

Era berean, honako **funtzio** hauek beteko dituzte:

- Talde eragilearen parte izango dira (aurrerago zehaztuko da taldea), erabaki estrategikoak hartzeko orduan inplikaturiko dira, eta kontuak emateko mekanismoetan eta transferentzia-prozesuetan parte hartuko dute (kontrastea eta ebaluazioa, emaitzak eta eraginak maila estrategikoan).

- Proiektuak bilatzeko ahalegin aktiboa egingo dute, ekimen interesgarriak bilatuz eta inguruari adi erreparatuz, aukera posibleak identifikatu ahal izateko.
- Prestutasun, inplikazio eta dedikazio arduratsua eta iraunkorra erakutsiko dituzte.
- Ilab-en berri eman eta informazioa helaraziko dute, bai sarearen barruan, bai kanpoan, eta, horretarako, agente partaideen arteko komunikazioa antolatuko dute eta ilab-en hedapenaren eta ikusgarritasunaren alde egingo dute lan.
- Aukera berriei ateak zabalduko dizkiete, eta, horretarako, horiei harrera egin eta laguntza emango diete.



AGENTE AKTIBOAK

Azterketa, esperimentazio edo transferentziako proiektuetan berrikuntza sustatzen dutenak dira agente aktiboak. Erkidegoaren bizitzan inplikaturik daude, ezagutza eta esperientziak trukatzeko dituzte, eta ekintzen bidez, ikaskuntza eta praktika onak sortzen dituzte, ondoren horiek hedatu ahal izateko. Agenteak agente aktibotzat joko dira, baldin eta azterketa, esperimentazio edo transferentziako proiektua egikaritze-fasean badago. Proiektua amaitzen denean, agente horiek ez-aktiboak bihurtu ahal izango dira, edo proiektu berria martxan jarri eta agente aktibo izaten jarraitu ahalko dute.

Nortzuk izan ahal dira agente

Agente aktibo izan ahalko dira:

- Sarera ezagutza helarazi eta berrikuntza sortzeko orduan laguntzeko konpromisoa adierazten dutenak.

- Ilab-en zehazten diren pilotuen lehentasun-mekanismoen bidez hautatu diren azterketa, esperimentazio edo transferentziako proiektu bat martxan dutenak.

Onurak eta konpromisoak

Agente aktiboek, ilab-en partaideak direnez gero, aukera izango dute:

- Gauzatzen diren proiektuetan erabakiak hartzeko espazioetan parte hartzeko, eta ilab-en estrategia elikatu eta eraikitzen duten proposamenak egiteko eskubidea baliatzeko.
- Ilab-en laguntza jaso eta haren ezagutza eta baliabideak (pertsonalak, teknikoak...) eskuratzeko, pertsona horien inplikazioa duten proiektuak garatze aldera.

Era berean, honako **funtzio** hauek beteko dituzte:

- Azterketa, esperimentazio edo transferentziako proiektuak gauzatuko dituzte, prozesuaren, emaitzen eta proiektuaren eraginaren gaineko ebaluazioan laguntzeko.
- Prestutasuna edukiko dute, konpromisoa hartu duten proiektuetan lan egiteko, eta, horretarako, ezarritako epeak bete, zorroztasunez lan egin eta modu eraikitzailean parte hartuko dute.
- Ekarpinak egingo dituzte, martxan dauden proiektuetatik ateratako jardunbide onen, ezagutzaren, informazioaren eta transferentziaren bidez.
- Ilab-a ezagutzera eman eta informazioa hedatuko dute, ilab-en ikusgarritasuna eta zabalkundea sustatzeko.
- Aukera berriei ateak zabalduko dizkiete, eta, horretarako, horiei harrera egin eta laguntza emango diete.

Agente aktiboak

Zer daukate? Berrikuntza eta sarerako transferentziak sortzen laguntzeko konpromisoa.

Zer egin dezakete? Proiektu berritzaileak egiteko laguntza jaso eta alderdi estrategikoak proposatu I-labari.

Konpromisoa hartzen dute proiektuak garatzeko eta ebaluatzeko, praktika onak partekatzeko eta parte-hartzearekin berriei harrera egin eta laguntza emateko.

AGENTE EZ-AKTIBOAK

Agente ez-aktiboak dira ikasteko eta entzute aktiboko jarrera dutenak, proiekturen bat sustatu edo hartan parte hartu arte. Orduan, izan ere, proiektuak irauten duen aldian, agente aktibo bihurtzen dira.

Nortzuk izan ahal dira agente

Agente ez-aktibo izan ahalko dira:

- Partaidetzan berrikuntzak sartzeko interesa duena (esperientzia eduki nahiz ez).
- Ilab-en ikaskuntza-erkidegoa garatzeko orduan inplikazioa duena, bai irakasten, bai beste batzuetatik ikasten.

Ilab-etik honako hau proposatu da: 4. konpromisoarekin lotutako Open Eskolek sareko agente ez-aktibo moduan parte hartu dezatela, eta, sarearen esparruan garatuko den proiektu bat aurkitu edo proposatzen duten neurrian, konpromiso- eta partaidetza-maila altuagoa hartzeko aukera eman dakiela.

Onurak eta konpromisoak

Agente ez-aktiboek, ilab-en partaideak direnez gero, aukera izango dute:

- Ilab-ek martxan dituen proiektuak gertutik ezagutzeko, bisiten edo “ate irekiko” saioen bidez.
- Iritzia emateko, ilab-en estrategiaren eta proiektuen gainean.

Era berean, **honako hau esperoko da beraiengandik:**

- Foro Irekian parte hartu dezatela, bertan gauzatzen ari diren proiektuen berri emateko eta zehaztu duten estrategia ezagutarazteko.
- Jarrera proaktiboa eduki dezatela, eta, beraz, deialdia egiten zaienean edo iritzia eskatzen zaienean, erantzun eta modu eraikitzailean parte hartu dezatela.
- Beren ezagutza eta praktika onak parteka ditzatela.

**Agente
ez-aktiboak**

Zer daukate? Partaidetza-berrikuntzan interesa.

Zer egin dezakete? I-labaren proiektuak gertutik ezagutu eta haien proiektuei eta estrategiari buruzko iritzia eman.

Konpromisoa hartzen dute beren ezagutza eta praktika onak sarean partekatzeke.

Hurrengo irudian, ilab-en sareko partaide-mota bakoitzetik esperoko diren funtzioak eta rolak laburbiltzen dira:

**Agente
eragileak**

Zer daukate? Esperientzia egiaztatua parte-hartzearen esparruan, eta ahal dela, partaidetzako prozesu berritzaileetan.

Zer egin dezakete? Erabaki estrategikoak hartu eta I-laba ordezkatu.

Konpromisoa hartzen dute ikuspegi estrategikoa emateko, arduraldi arduratsua izateko, ezagutzaren transmisioa artikulatzeko eta langile berriak sartzeko.

**Agente
aktiboak**

Zer daukate? Berrikuntza eta sarerako transferentziak sortzen laguntzeko konpromisoa.

Zer egin dezakete? Proiektu berritzaileak egiteko laguntza jaso eta alderdi estrategikoak proposatu I-labari.

Konpromisoa hartzen dute proiektuak garatzeko eta ebaluatzeko, praktika onak partekatzeke eta parte-hartzeak berriei harrera egin eta laguntza emateko.

**Agente
ez-aktiboak**

Zer daukate? Partaidetza-berrikuntzan interesa.

Zer egin dezakete? I-labaren proiektuak gertutik ezagutu eta haien proiektuei eta estrategiari buruzko iritzia eman.

Konpromisoa hartzen dute beren ezagutza eta praktika onak sarean partekatzeke.

3. Parte hartzeko espazioak

Parte hartzeko espazioek ilab-en sareko gobernantza antolatzen dute, eta agente-mota desberdinen artean lankidetzan aritzeko mekanismo batzuk eratzen dituzte. Horrenbestez, ilab-a osatzen duten 3 espazio-mota daudela esan genezake:

- **Talde eragilea:** agente eragileek osatutako espazio bakarra, sarearen estrategia lantzen duena eta haren inguruko erabakiak hartzen dituena, eta, halaber, ilab-en esparruan garatu beharreko proiektuak hautatzen dituena, zehaztutako estrategiaren arabera.
- **Taldeak proiektuka:** proiektu zehatzen arabera aktibatzen diren espazio askotarikoak, azterketa, esperimentazio edo/eta transferentziako funtzioak garatzen dituztenak. Agente aktiboek denbora mugaturako osatutako taldeak dira. Proiektuen bidez metatutako ikaskuntzek eta esperientziek ere elikatu dezakete ilab-en estrategia eta bertan eragin.
- **Foro irekia:** sortze bateraturako eta ilab-en etengabeko hobekuntzarako espazioa. Horren bidez, herritarren ikuspegia txertatzen eta ikaskuntza-erkidegoa indartzen da. Leku hau irekita dago ilab-en partaide guztientzat (eragileak, aktiboak eta ez-aktiboak), bai eta proiektuan ekarpen zehatzak edo hurbilketa jakin batzuk egin nahi dituzten erakunde eta pertsonentzat ere.

Jarraian, espazio horietako bakoitzari lotutako eginkizunak, lan-mekanismoak, partaideak, rolak eta metodologiak zehaztuko dira.

TALDE ERAGILEA: ORIENTAZIO ESTRATEGIKOA

Ilab-en orientazio estrategikoan eta etorkizuneko ikuspegiaren laguntzeko espazioa, ondoren zerbitzu eta proiektu zehatzen bidez ezartzen dena. Talde honek sarearen iraunkortasunarekin, agenda partekatuarekin, gardentasunarekin eta barne-harremanekin lotutako zereginak ere hartuko ditu beregain, bai sarearen barruan dauden gainerako taldeekiko, bai OGP EUSKADI proiektuko organo eta espazioekiko.

Osaera

9 agente eragilek osatutako talde txikia da: 3 agente instituzional, 3 gizarte-agente eta 3 agente aditu daude. Estrategiaren alderdi jakin batzuk jorratzean, talde honek agente aktibo eta ez-aktiboekin ere egiten du lan.

Lan-mekanismoak eta funtzionamendua

Talde eragilea ekipo mugatua da, eta modu malgu eta irekian egiten du lan sareko beste agente batzuekin. Talde murriztua denez, agente aktibo eta ez-aktiboek dei egiten die, beren lan-eremuetako batzuk garatzeko. Hartara, hainbat ekipo jarri ahal ditu martxan, modu puntualean edo jarraituan lan egin dezaten. Deialdi horietan landuko diren gaiak honako hauek izan ahalko dira: lerro estrategikoak, proiektu pilotuen hautaketa eta jarraipena, agenda partekatua, komunikazio-estrategia, kontu-ematea... Talde eragilearen barruan gai bakoitzaren arduraduna zein izango den zehaztea lagungarria izan daiteke, zereginak kudeatzeko modua sinpletu eta hobetzeko.


Bai talde eragilea, bai lantaldeak arduratuko dira elkarlanean jarduteaz, lana ebaluatzeaz, egon daitezkeen gatazkak ebazteaz eta kideen ongizatea zaintzeaz. Era berean, erabakiak erregistratu beharko dituzte, eta beren beharrizanen arabera, bileren erritmoa ezarriko dute.

Erabakiak hartzea

Erabakiak hartzeko prozesuan, honako printzipio eta balio hauek zaintzeko ahalegina egingo da:

- Denbora eman behar da, erabaki-gaia ulertu eta hari buruz eztabaidatzeko.
- Adierazteko modu desberdinak bilatu behar dira: hausnarketa indibiduala, iritzi-trukea eta abar.
- Irekiera-uneak sortu behar dira, iritzi eta ikuspegi oro entzuteko, bai eta itxiera-uneak ere, erabaki komun bat hartu ahal izateko.
- Ikuspegi batzuk beste batzuen gainetik ez ezartzeko ahalegina egin behar da.
- Botazioa saihestu behar da.

Erabakiak hartzeko prozesua zaintzeko, **metodologia posible batzuk jaso dira II. eranskinean.**



TALDEAK PROIEKTUKA: ESPARRU OPERATIBOA

Ilab-en 3 funtzio nagusiekin lotutako proiektuak diseinatu, hedatu eta ebaluatzeko espazioak: azterketa, esperimentazioa eta transferentzia. Espazio horietan, proiektu bakoitzaren koordinazioa, komunikazioa, agenda eta praktika onen transferentzia gauzatzen dira.

Osaera

Agente aktibo instituzional, sozial eta adituek osatutako taldeak dira. Agente eragileek ere parte hartu ahalko dute talde horietan.

Lan-mekanismoak eta funtzionamendua

Proiektuka eratutako taldeak arduratuko dira azterketa, esperimentazio eta transferentziako proiektuak kudeatu eta ezartzeaz, eta harreman zuzena izango dute talde eragilearekin.

Komunikazio hori zuzena izango da, eta etengabea izan beharko da, proiektuak estrategiarekin bat etor daitezen, eta, era berean, proiektuetako proposamenek estrategia elikatu dezaten. Informazio hori internet bidez helarazi ahalko da.


Denbora-tarte mugatu baterako eratutako taldeak dira. Proiektuko helburuen betearazpenaren arabera, aktibatu eta desegino dira.

Erabakiak hartzea

Talde eragilean bezala, honako printzipio eta balio hauek zaintzeko ahalegina egingo da:

- Denbora eman behar da, erabaki-gaia ulertu eta hari buruz eztabaidatzeko.
- Adierazteko modu desberdinak bilatu behar dira, asanbladaz harago: hausnarketa indibiduala, iritzi-trukea eta abar.
- Irekiera-uneak sortu behar dira, iritzi eta ikuspegi oro entzuteko, bai eta itxiera-uneak ere, erabaki komun bat hartu ahal izateko.
- Ikuspegi batzuk beste batzuen gainetik ez ezartzeko ahalegina egin behar da.
- Botazioa saihestu behar da.

Metodologia posibleak jaso dira II. eranskinean.



FORO IREKIA: KONTSULTA ETA IKASKUNTZA

Espazio honetan, agente ez-aktiboen eta, orokorrean, herritarren ikuspegia txertatzen da, eta, haren bidez, ikaskuntzaren erkidegoa indartu eta hedatzen da.

Bertan, informazioa eman eta ekarpenak jasotzen dira ilab-en proiektuei eta planifikazio estrategikoari buruz (bai proiektu aktiboen gainean, bai aktibatze dauden horien gainean). Aurrez aurreko partaidetzarako edo/eta partaidetza birtualerako katea da. Bertan, agente eragileek berariaz azaltzen dituzte adostutako estrategiak eta horien ondoriozko proiektuak. Hartara, ilab-eko gainerako partaideek (gehienak, agente ez-aktiboak) eta bertaratzen diren pertsonak hura ezagutu, haren gaineko iritziak eman, eta interesa edukiz gero, inplikazio aktiboa eduki dezakete. Ilab-en sarea aberasteko, kontuak emateko, komunikatzeko eta egiaztatze leku da; informazioa jaso, hausnarketak egin eta entzuteko leku; ilab-en barruan nahiz kanpoan garatutako ikaskuntzak eta praktika onak partekatzeko leku. Halaber, sareko lanari zentzua ematen dioten erronkak, ideiak eta proposamenak planteatzeko espazioa ere bada.

Azken finean, ikasteko eta lankidetzan aritzeko aukerak sortzen dituen testuingurua eta ilab-en proiektua herritarrekin batera sortu eta aberasteko espazioa da.

Parte-hartzaileak

Agente ez-aktiboak dira Foro Irekiko partaide nagusiak, eta espazio hori sareko gainerako agenteekin eta herritar ez antolatuekin partekatuko dute. Beren ezagutza eta ikuspegiak ezagutu nahi dira, ilab-en proiektuak eta estrategia aberastu eta elikatzeko.

Lan-mekanismoak eta funtzionamendua


Foro Irekiak mekanismo edo prozesu jakin batzuk edukiko ditu, honako helburu hauek betetzeko:

- Ilab-en strategiaren kontakizuna egitea.
- Iritziak eta ekarpenak jasotzea martxan dauden proiektu eta estrategiaei nahiz eratuko direnei buruz (baldin eta proiektuak eratutako taldeen ustez beharrezkoa bada beste ikuspegi eta ekarpen batzuk jasotzeko irekiera eta partaidetza zabaltzea).
- Ikasteko eta ezagutza trukatzeko aukerak sortzea.

Gainera, aurrez aurreko bitartekoak eta birtualak uztartuko ditu.

Ekarpenak jaso eta ikaskuntza sustatzeko, erraz erabiltzeko moduko plataforma birtual bat garatuko da, elkarrekintza eta lankidetzak indartzeko.

Aurrez aurreko saioen kasuan, beharrezkoa izango da talde profesional bat dinamizatzaileran aritzea, erabili beharreko metodologia garatu eta zehazteko.



Legenda

- Agente eragileak
- Agente instituzionala
- Agente aktiboak
- △ Agente aditua
- Agente ez-aktiboak
- Agente soziala
- Herritarrak

4. Kontu-ematea eta gardentasuna

Ilab-en gobernantza-ereduaren printzipioetan jasotzen den bezala, kontuak emateari dagokionez, **garrantzitsua da kontzeptuen eta metodologiaren diseinutik bertatik bermatzea irekiera, gardentasuna eta trazabilitatea, egindakoa mailakatu eta transferitu ahal izateko.** Horrenbestez, ezinbestekoa da komunikatzen den informazioaren ikuspegia zehaztea, bai eta horretarako erabilitako bitartekoak eta formatuak finkatzea ere.

Informaziorako sarbidea

Informazioa jasotzeko eskubidea ilab-eko kide guztien oinarrizko eskubidea da, beren inplikazio-maila eta agente-mota edozein izanda ere. Horrenbestez, sarbide unibertsalekoak izango dira bai ilab-en antolaketa orokorrari eta estrategiari buruzko informazioa, bai esperimendu, proiektu eta zerbitzu zehatzen ziozko tresnak eta ikaskuntzak; hots, guztiei irekita egongo dira.

Informazio guztia zabalik dagoela bermatuko da, interneteko plataforma baten bidez kontsultatu eta erabili ahal izateko.

Informazioaren ikuspegia, kateak eta formatuak

Herritarrei informazio argia eta sinplea ematea beharrezkoa izango da proiektua irekia dela bermatzeko, ateratako ikaskuntzen erabilgarritasuna sustatzeko, eta ohikoak baino zabalagoak diren pertsonekin komunikazioa indartzeko. Horren harira, ezinbestekoa izango da bereziki erreparatzea informazioa laburbiltzen duten, komunikazio erraza sustatzen duten eta komunikazio hori erakargarri bihurtzen duten mekanismoei eta formatuei. Ikuspegi hori da gehiago ezagutu behar dena, tratamendu egokia izan dezan eta eraginkor bihurtu dadin. Ondorioz, ekipo profesionalak eduki beharko dira, ikuspegi hori gauzatu eta martxan jartzeko.

Bestalde, garrantzitsua da ilab-etik informazio zabala eta zehatza ematea proiektuari buruz. Izan ere, proiektuarekiko konfiantza eta fidagarritasuna sustatzen laguntzen du.

Bai maila estrategikoan eta proiektu-mailan egindakoa islatzen duten kontakizunak, bai ilab-eko lanean zehar erabilitako bestelako erregistro-mekanismo batzuk eskuragarri egongo dira, libreki kontsulta daitezten.

Foro irekia. Kontuak emateko espazioa

Foro irekia ("Parte hartzeko espazioak" atalean aipatutakoa) espazio fisiko eta birtuala da, hartutako erabakien kontuak emateko eta horien gaineko iritziak jasotzeko asmoz sortua. Aurrez aurreko partaidetza eta partaidetza birtuala ahalbidetzen dituen mekanismoa da, eta planifikazio estrategikoa eta haren ondoriozko proiektuak azaltzeko xedea du. Hartara, bertaratzeko diren pertsonen hura ezagutu dezakete, haren gaineko iritziak eman, eta, interesa edukiz gero, aktiboki inplikatu.

Aurrez aurreko partaidetzarako eta partaidetza birtualerako espazioak sortu eta zaintzea oso garrantzitsua da topaketa eta konexio berriak sustatzeko.

5. Nondik hasi

Lehen ere azaldu den bezala, gobernantza-eredua apurka-apurka ezarri nahi da, ilab-en proiektua bera garatu ahal. Interesgarria da, lehendabizi, sarean lan egiten hasi ahal izateko mekanismoak aktibatzea, eta, apurka-apurka, gobernantza-eredua ezartzea.

Hori dela eta, 3. Konpromiso Taldearen lanaren bigarren fase honetan, 2019ko urrian hasi den horretan, aurretik azaldutako ereduaren hanka batzuk zutik jartzeko aprobetxatu behar da. Ereduaren pilotu moduan aktibatu behar da, ondoren haren ezarpena baloratu eta beharrezko hobekuntzak egiteko.

Partaidetzan berrikuntzak sartzeko 4 proiektu pilotatzearen helburu nagusia honako hau da: ilab-en gobernantza-ereduaren eta kontzeptualizazioaren zenbait alderdi (lehen fasearen ondoriozkoak) probatzea, bai eta transferitu daitezkeen lehen produktuak ekoiztea ere. Proposatzen den pilotatze bikoitzeko prozesu horretan konplexutasunik eta nahasdurarik ez sortzeko, errealitatearen eta paperean islatutakoaren arteko aldeak behatu eta alderatzea izango da batez ere frogatzearen xedea. Horretarako, gainera, frogak egiteko berezko mekanismo batzuk aktibatuko dira.

Gobernantza-ereduan aktibatu eta ebaluatu beharreko alderdiak honako hauek dira:

Nola parte hartu sarean

Inplikazio-mailen ikuspegitik lan egin nahi da, ondoren neurtzeko ea adostutako 3 maila horiek aski diren, ea zentzua duten bai kideentzat, bai proiekturako, eta ea sartzeko baldintzak eta maila bakoitzeko onurak eta konpromisoak egokiak diren. Ondorioz, ilab-en funtzionamenduan 3 inplikazio-maila egongo dira: agente eragileak, agente aktiboak eta agente ez-aktiboak. Agente eragilearen funtzioa 3KTko kideek beteko dute; agente aktiboak izango dira 2019 eta 2020 artean gauzatuko diren 4 proiektu pilotuetan inplikaturik egongo diren horiek; eta agente ez-aktibo moduan parte hartzeko proposamena egingo zaie ordura arte ilab-en garapenean interesa erakutsi duten pertsona, erakunde eta instituzio guztiei, hau da, proiektu pilotu bat aurkeztu dutenei, 3. konpromisoaren Foro Irekian parte hartu dutenei, nahiz irizpideen gaineko galdetegiari erantzun dietenei.

Informazioaren eta gardentasunaren kudeaketa

Ilab-a irekitzeko mekanismoak pilotatuko dira, transmititzen den informazioaren ikuspegia eta informazio hori komunikatzeko modua baloratuta. Horretarako, 3KTren saio bakoitzaren osteko kontakizunez gain, beste bitarteko batzuk aktibatuko dira. Horietan, helarazitako informazioa laburra eta zehatza izango da eta formatua erakargarriagoa.

Erabakiak hartzea


Baimen Integratzailearen bidez Erabakiak Hartzeko Prozedura probatuko da, etorkizunera begira erabaki irmo bat hartzea beharrezkoa den uneetan.

3. konpromisoko lanaren bigarren fasea amaitzean, probatuta dagoen eta oinarritzko alderdiak hobetuta dituen gobernantza-eredu bat eskuratzea espero da. Horixe izango da ilab-a martxan jartzeko lehen unea, gutxieneko lan-mekanismo batzuk baliatuko dituen, hura apurka-apurka eta modu iraunkorrean garatu ahal izateko.

6 BALIABIDEAK

Ilab-ak, lehen bertsioan, gutxieneko eredu bideragarri bat hartuko du kontuan, erraz aplikatu eta martxan jar ahal izateko. Horretarako, gutxieneko baliabide batzuk eduki beharko ditu:

1. **ESPazio DIGITALA.** Plataforma bat egongo da, erreferentziazko espazioa izango dena, mota desberdinetako eta lurralde sakabanatuko erkidegoa (ilab-a kasu) batu ahal izateko. Informazio-espazio bat sustatuko da, proiektu zehatzetan elkarlanean aritzeko, sarea elkarlanean kudeatzeko, eta sortutako ezagutza batzeko, ikaskuntza eta transferentzia sustatze aldera.
2. **ESPazio FISIKOAK.** Sareko agenteek lurraldean lehendik ere dauden espazioak jarriko dituzte eskuragarri, erabilera desberdinak batu ahal izateko; besteak beste: idazkaritza teknikoaren lan-espazioa, ilab-en lurralde-erreferentzia eta -informaziorako puntua, topaketak eta bilerak egiteko espazioa, esperimendu desberdinen esparruan lan egiteko lekua, dibulgazio-jarduerak antolatze tokia, eta abar. Aztertu egin beharko da ea baldintza-motaren bat egon beharko den espazio horien eskuragarritasuna jasagarria izan dadin, batez ere erabilerak jarraituagoak, intentsiboagoak edo errepikatuagoak diren kasuetan, eta beti ere posible den neurrian.
3. **BESTE BALIABIDE BATZUK.** Baldintza egokiak bermatu behar dira, ilab-a eta haren helburuak bideragarriak eta denboran iraunkorrak izan daitezen, eta, horretarako, ezartzen diren itxaropenen arabera egokiak diren baliabide publiko zein pribatuak ahalbidetu, eskaini eta mugitu behar dira. Adibidez, honako helburu hauek lortzeko baliabideak: kudeaketa eta koordinazioko talde txiki bat sortzea; zeregin batzuk kanpora ateratzea (agente bakoitzak ilab-en eman dezakeen borondatezko denboraz harago); esperimendu batzuk garatzea eta beste batzuetan laguntzea; edo sortutakoa komunikatu, sistematizatu eta transferitzea.



7 ZERBITZUAK

Ilab-ek eskainitako zerbitzuen helburua partaidetzan berrikuntzak sartzea izango da. Ilab-en erkidegoak berak antzemandako beharrianak artatu beharko dituzte zerbitzu horiek, eta sinpleak, irigarriak eta mailakatzeko modukoak izan beharko dira.

Gaur egun, oraindik ere konplikatu da zerbitzuen zorro hau finkatzea. Izan ere, neurri handi batean laborategiaren gainean jartzen diren itxaropenen eta oraindik ere zehazteke dauden beste faktore batzuen menpe dago: inplikaturako agenteak (hasieran zenbatek eta nortzuek hartzen duten konpromisoa, eta zein gobernantza-ereduren arabera), dimentsioa (antolakuntza eta ekintza-plana), baliabideak (materialak, ez-materialak, aurrekontuak), edo lehentasunak (zer den garrantzitsua edo premia-koena, hasteko).

II. eranskinean, **hainbat aukera eskaintzen dira, kit gisara, uztartu eta handitu daitezkeenak. Zerbitzuen zorro hori antolatzeke, ilab-en helburuetan aipatu diren hiru jarduera-eremuak erabiltzen dira: Azterketa, Esperimentazioa eta Transferentzia.**

I. ERANSKINA-ZELAN EGITEN DUTE. Laborategi, programa eta sareen beste esperientzia batzuetatik ikasiz

Aztertutako praktika onak honako agirian aurkitzen dira: “[Zelan](#) egiten dute. Laborategi, programa eta sareen beste esperientzia batzuetatik ikasiz” (“Gobernu irekia, gardentasuna eta parte-hartzeari buruzko gidak” fitxaren barruan).

22 kasuak (horietako batzuek, era berean, hainbat erreferentzia jasotzen dituzte) hiru motaren arabera batuta daude: 1.- Herritarren berrikuntzako edo/eta berrikuntza publikoko laborategiak, 27e eskualdea barne (+ Superpublic + Les Halles Civiques), Behavioural Insights Team, Bherria, Danish Board of Technology, GovLab, Medialab Prado (+ ParticipaLab), newDemocracy, UK Policy Lab eta Wikitoki; 2.- Gobernuaren laborategiak, horren barne direla Decidim (+ L.I.D.), LAAAB, LabHacker, MindLab, Santalab eta vTaiwan (+ PDIS); eta 3.- Sareak, horren barruan sartuta Ateneos Cooperativos, Haurren Hiria Sarea, Innovación Ciudadana, Puntos de Cultura (Brasil eta Argentina + Espacios de Creación Joven de Extremadura), Q-epea eta Euskadiko sare publikoak (Berritzeguneak + Ingurugelak + Kzguneak).

II. ERANSKINA. PROZESU KOLEKTIBOETAN ROLAK BANATU ETA ERABAKIAK HARTZEKO METODOLOGIAK

Azken atal honetan, hainbat metodologia jasotzen dira, elkarlanaren kudeaketa babestu eta errazten dutenak. Halaber, jarraibide zehatzak eskaintzen dira erabakiak hartzeko prozesu kolektiboetarako.

Jarraian datorrena lagin txiki bat baino ez da, ekarpen berriak, ikuspegi desberdinak eta lan egiteko moduak jasotzeko irekita dagoena.

Rolen banaketa

Lan-bilerak egitean, parte hartuko duten pertsonak bete beharko dituzten rolak zehaztea komeni da. Eginkizunak zehaztu eta banatzen badira, denbora hobeto kudeatu ahalko da, bilerak eraginkorragoak izango dira, eta lana hobeto banatuko da.

Elkarlana sustatzen duten roletako batzuk honako hauek dira:

- Errazte-rola: bilerak prestatzen eta gidatzen ditu
- Kontatze-rola: deialdiak eta aktak egiten ditu, denborak kontrolatzen ditu, eta abar
- Transferentzia-rola: sareko beste talde batzuekiko komunikazioa antolatzen du

Interesgarria da rol horiek ordezkatzeko ardura duten pertsonak taldean bertan aukeratuak izatea, beren kideek proposatuta. Hau da, rolak esleitzean, berariaz argudiatu beharko da zergatik jotzen den pertsona bakoitza egokitzen rol jakin baterako, kontuan hartuta bere motibazio pertsonala (eta ez gehiengoz egindako bozketa bat egin delako). Gainera, rol horiek txandaka betetzea komeni da.

Erabakiak hartzea

Erabakiak hartzeko prozesuei balioa eman eta denbora eskaintzea funtsezkoa da, elkarlana zaindu eta elkarrekin batera aurrera egin ahal izateko. Hurrengo lerroetan, bi prozedura desberdin proposatu dira, erabakiak kolektiboki hartzeko prozedura adostu eta banatzeko.

Adostasun bidez hartutako erabakiak

Erabakiak adostasun bidez hartzean, jorratu beharreko arazoa edo hartu beharreko erabakia adierazi eta zehaztuko dugu lehendabizi. Ondoren, denbora batez arituko gara irtenbide posibleen proposamenak egiten, gero jasotako proposamen horien gainean eztabaida sortzeko. Eztabaida horretan, ideietako batzuk aldatu eta beste batzuk ezabatuko ditugu. Hartara, zerrenda laburragoa izango da, eta proposamen bakoitzaren abantailak eta desabantailak eztabaidatu ahal izango ditugu. Garrantzitsua da pertsona guztiek hitz egiteko aukera edukitzea.

Eragozpen garrantzitsuak badaude, berriz ere aztertuko ditugun abantailak eta desabantailak. Eragozpen handirik ez badago, erabakiak azalduko ditugu; adostasun-maila egiaztatuko dugu; adostasuna badago, zuzenketak eta eragozpen txikiak sartuko dira; eta, azkenik, berriz ere egiaztatuko da azken adostasun-maila.

Baimen integratzailez hartutako erabakiak


Baimen integratzailez⁵ hartzen direnean erabakiak, lehenik eta behin norbere sentipenak jasotzeko lehen itzulia egingo da, eta, bertan, pertsona guztiek adieraziko dituzte onartu beharreko proposamenak edo hartu beharreko erabakiak sortzen dizkieten sentipenak edo iritziak. Lehen itzuli horren ondoren, bigarren itzulian honako galdera honi erantzuniko diogu, baiezkoa edo ezezkoa emanda: Proposamenaren gainean eragozpen, zalantza edo galderaren bat dago? Pertsona guztiek ezetz erantzunez gero, proposamena onartuta geratuko da.

⁵ Baimen integratzailez erabakiak hartzea izaten da soziokrazian jarraitu ohi den metodologia. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: Freitas, H. (2016): Manual de Sociocracia.

Pertsonaren batek baietz erantzunez gero, hirugarren itzulia egingo dugu, zalantzak, iritziak edo ñabardurak azaltzeko.

Itzuli horren ostean, dinamizatzailleak berriz zehaztuko du hasierako proposamena, kontuan hartuta mahai gainean jarritako iritziak eta lehen itzulian adierazitako sentipenak. Bigarren proposamen horrekin, berriz ere egingo da eragozpenak jasotzeko itzulia.

Prozedura hori jarraituko da, harik eta partaide guztiek ezetz erantzuten duten eta proposamena onartzen den arte.



III. ERANSKINA. ILAB-EN ZERBITZU POSIBLEEN ZORROA

II. eranskinean, hainbat aukera eskaintzen dira, kit gisara, uztartu eta handitu daitezkeenak. Zerbitzuen zorro hori antolatzeko, ilab-en helburuetan aipatu diren hiru jarduera-eremuak erabiltzen dira: Azterketa, Esperimentazioa eta Transferentzia.



1. Azterketa

Ekintza eta zerbitzu jakin batzuk aztertzen dira, **ikerketarekin, agenteen identifikazioarekin, erronkekin eta joerekin lotuta, edo horrek guztiak tokiko esparruaren eta esparru globalaren artean duen lotura ikertzen da.**

- **Erronkak eta joerak modu kolektiboan antzemateko jarduerak**, epe labur, ertain eta luzean, ilab-en ikerketa-lerroak zehazteko (esate baterako, datuen erabilera intentsiboa, jabetza intelektualaren eta lizentzia irekien modu desberdinak, minipublikoak -herriarren audientziak zozketa bidez-, gamifikazioa, edo jarrera-zientziak).
- **Euskadin partaidetzan sartutako berrikuntzen mapa.** Mapa-direktorio bat, partaidetzan berrikuntzak sartzeko lanean egon diren agenteak eta tokiko sareak ikusgarri bihurtu eta nabarmentzeko, ilab-a osatzen duten horietatik hasita, baina, baita beste asko sartuta, esaterako Elkarlan sariarekin lotutakoak edo zerbitzu espezializatuak ematen dituzten enpresen direktorioko agenteak (dena delako arrazoiagatik ilab-en erkidegoaren parte ez

badira). Mapaketarako erreferentzia ona izan daiteke, gai honetan, CIVICS plataforma⁶. Mapaketa horrek, agenteak identifikatzean, berariaz islatu behar ditu esperientzia nagusiak eta ezaugarri bereizgarriak, kontuan hartuta arrakasta izan duten eta porrota eragiten duten kasuak, transferentzia planteatzeko orduan esanguratsuak izan baitaitezke.

- **Partaidetzan berrikuntzak sartzen dituzten nazioarteko dinamika edo sareetako parte-hartzea, mundu osoan zehar antzeko helburuekin jarduten duten beste agente batzuekin lotuz ilab-ek toki-mailan egiten duen lana.** Harreman horiek kualitatiboak izan behar dira, kuantitatiboak baino gehiago, eta proiektu zehatzen garapen edo transferentziarekin eta interes zehatzekin lotuta egon behar dute. OGPrek esparrua egokia da horretarako.

2. Esperimentazioa

Proiektu esperimentalak garatzea ilab-en alderdi nuklear eta dinamikoena izan behar da, eta horren arabera antolatuko dira gainerako ekintzak eta zerbitzuak.

Proiektu horien atzean honako hauek egon ahalko dira:

- Ilab-en lan-lerroak. Azterketa-ekintzetatik eta lantalde desberdinetatik antzemandako lan-gai eta erronka zehatzak.
- Martxan dauden proiektuak, beren prozesuetan, metodologietan edo/eta partaidetza-tresnetan berrikuntzaren aldeko apustua egin nahi duten ekimenetara batuta.
- Proiektuen deialdi irekia, partaidetzan berrikuntzak sartzen dituzten proiektuen garapena identifikatu eta babesteko. Proiektu horiek agente herritarrek, toki-erakundeek, interes-taldeek edo adituek sustatuko dituzte, proiektu-mota pluralagoa izan dadin.

Proiektuak bi eratan jorratu ahal izango dira, eta tarteko beste formula batzuk ere planteatu ahal izango dira:

1. Proiektu bakoitza modu autonomoan gauzatuko da, zeina bere logikatik eta ibilbidetik (gai eta helburua, lurraldea, agenteak, aurrekontua...), Etorkizuna Eraikiz⁷-en deialdi irekian egiten den bezala (adibide bat jartzearen).
2. Hackaton erako formatu-esparru batean. Bertan, proiektu desberdinak batzen dira gai edo/eta metodologia baten inguruan, eta proiektuen arteko trukea eta topaketa

⁶ Automapaketa lankiderako tresna digitala, besteak beste Innovación Ciudadana, LAAAB edo SantaLab bezalakoek erabilia <https://civics.cc/es/#/iniciativas>

⁷ Gipuzkoalab da Etorkizuna Eraikiz-en laborategia. Bertan, berrikuntza-proiektu estrategiko edo esperimental desberdinak diseinatu, esperimentatu eta aktibatzen dira, lankidetzara bilatzeko, sareko lana garatzeko, eremu akademikoekin harreman estua lortzeko, nazioarteko agenteekin harremanak ezartzeko eta abar, <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/etorkizunaeraikiz/proyectos>.

lehenesten dira. Halaxe gertatzen da, esaterako, Medialab Pradoren edo Innovación Ciudadanaren deialdietan (10 proiektu / 100 partaide / 2 asteko sortze bateratua)⁸.

Nolanahi ere, esperimentazio-proiektuen garapenean hainbat agente sartu beharko dira, lankidetzak publiko-soziala gauzatzeko. Esaterako: agente soziala (erabiltzaileen, ukituaren edo hartzaileen ikuspegia kontuan hartuta eta parte hartu ez duten horiei bereziki erreparatuta), agente espezialista (metodologia, ezagutza aditua, esperientzia aplikatua...) eta agente instituzionala (esparru politiko-administratiboa, ezagutza eta esperientzia, eremu teknikotik eta baliabideetatik erreparatuta); halaber, nazioarteko agente bat gehitu ahalko da (egiaztapen-lanak egin eta transferentzia gauzatzeko).

Orokorrean, proiektu horiek ilab-en eta proiektu bakoitzeko arduradunen arteko ekoizpen bateratuan egingo dira. 3. konpromisoaren esparruan martxan jarriko diren pilotuak horren guztiaren adierazgarri izan behar dira.

Proiektu esperimentalak identifikatzeko eta horiekin lankidetzan aritzeko oinarriak izeneko dokumentuaren bidez, jarduteko printzipio partekatuak ezarri nahi ditu; lehen protokolo horren helburua da ilab-ak etorkizunean egingo dituen proiektu esperimentalen eta sarearen arteko lankidetzak nolakoa izango den zehaztea. OGP Euskadiren 2018-2020 Ekintza Planaren 3. konpromisoko lau proiektu pilotuak gauzatuz lortutako ikaskuntzetatik abiatuta egingo da. Dokumentuak prozesu osoari heltzen dio: proiektu esperimentalak identifikatu, hautatu eta abiarazi, haien arteko elkarreragina bultzatu eta emaitzak ebaluatu eta transferitu. Eranskinean daude laburtuta lau proiektu pilotuak eta horien transferentzia-produktuak: **Aurrekontu irekiak; Parte-hartze osasungarria; Thinking Fadura eta Etorkin Rekalde.**

3. Transferentzia

Hemen batzen dira ilab-eko zerbitzu guztiak, laguntzarekin eta errazte-lanarekin lotutakoak, nahiz ebaluazio, sistematizazio, mailakatze edo beste testuinguru batzuetan errepikatze aukerarekin lotutakoak.

- **Orientazio-zerbitzua.** Aholkularitza emango zaie beren testuinguruetako partaidetzan berrikuntzak sartzeko prozesuak aktibatu nahi dituzten agenteei (sarearen barrukoei nahiz kanpokoei). Oinarrizko gaien (prozedurak, metodologiak, arrakasta-kasuak eta abar) gaineko prestakuntza moduan antolatu liteke, agente bakoitzaren proiektu zehatzaren gainean lan egiteko orientatutako aholkularitza-orduen pakete txiki batekin batera.
- **Transferentzian laguntzeko zerbitzua.** Transferentzia erraztea da ilab-en helburu gakoetako bat da, eta, orokorrean, ez gaude bat ere ohituta horretara. Horrenbestez, alderdi hori zaintzeko, laguntza-zerbitzua eskainiko da prozesuak eta emaitzak sistematizatu eta paketetan ezartzeko orduan, kontuan hartuta nola planifikatu behar den transferentzia hasieratik, eta nola egin behar den hori modu ireki eta partekatuan.

⁸ Sarrera laburra herritarren berrikuntzako laborategietara. LABIC, <https://www.segib.org/laboratorios-de-innovacion-ciudadana-que-son-y-para-que>.

Zerbitzu honen formatua orientazio-zerbitzuaren antzekoa izan daiteke: zati bat prestakuntzarekin lotuta eta beste bat aholkularitzarekin.

- **Zerbitzu espezializatuak ematen dituzten enpresen direktorioa, arrazoituta eta egiaztatuta.** Enpresa espezializatuertarako sarbidea errazteko, ilab-ek direktorio arrazoitu bat sortzeko proposatu ahalko luke. Direktorio hori laborategiak berak egiaztatu/homologatu beharko luke, aurrez ezarritako irizpide batzuen arabera. Direktorio hori, irekia izango dena eta etengabe eguneratuko dena, baliagarria izan beharko litzateke zerbitzu espezializatuak ematen dituen enpresa bakoitza labor azaltzeko, beren espezializazio-eremuak adierazteko, beren eskaintzako alderdirik diferentzialenak nabarmentzeko eta egindako proiektuen hautaketa txiki bat azpimarratzeko. Halaber, zerbitzuen erabiltzaileen iritzia jasotzeko atal bat eduki ahalko luke.
- **Ebaluatu eta kontrastatzeko sistema.** Lehenik eta behin, adierazle orokorren esparrua zehaztu behar da, ilab-en ondorioak eta haren esparruan garatutako programen eta jardueren ondorioak ebaluatzeko. Horretarako, kontuan hartuko dira bai ilab-en printzipioak, bai esperimenduak garatzeko ezarritako irizpideak. Esparru horretan oinarrituta, berdinen arteko kontraste-talde bat sortuko da, agente desberdinen artean ebaluatzeko gauzatu diren esperimenduak eta ilab-en funtzionamendu orokorra. Ebaluazio eta kontraste horretan, beharrezkoa iritziko balitz, kanpoko ikuskaritza bat ere egin liteke, osatzeko⁹.
- **Prestakuntza espezializatua.** Aurrez aurreko prestakuntza edo/eta prestakuntza birtuala sustatu behar dira partaidetzan berrikuntza sartzeko espezializazioan (bai eskumenak birziklatzeko, bai etorkizuneko profesionalei prestakuntza emateko). Jarduera horien muina ez da zuzenean garatuko ilab-etik; aitzitik, beste agente batzuekin batera ekoitzi ahalko da, sarean babestuta edo/eta sinpleki hedatuta (neurri handi batean harremanak ezarri eta zentzuzko esparru bat eman beharko zaie lurraldean lehendik garatzen diren jarduerari, esaterako unibertsitateetan lehendik dauden masterrei, baldin eta partaidetzako alderdi desberdinekin lotuta badaude, horiekin lotura programatikoak, praktikak, Master Amaierako Lanak eta abar ezartzeko). Jarduera horiek zuzenean egon beharko dute lotuta -oso baten parte gisa- Open Eskolarekin (horixe da OGP Euskadiren 4. konpromisoa). Hala, bere jardueraren xedea partaidetza sozial eta instituzionaleko prozesu eta tresnen ezagutza sustatu eta hobetzea izango da, bai herritar gisa, bai maila politikoan, bai maila teknikoan.
- **Euskal unibertsitateekin ikerketa-bekak adostuko dira**, honakoak lortzeko: ezagutzaren eta esperientziaren eremu desberdinak sakontzea; ilab-en gai estrategikoak jorratzea; eragina ebaluatzen eta sarea bera nahiz esperimendazioko prozesu eta proiektuak

⁹ Ondasun Komunaren Ekonomia hiru ebaluazio-maila proposatzen dira: autoebaluazioa, berdinen arteko ebaluazioa, eta kanpoko ebaluazioa, <https://economyadelbiencomun.org/evaluacion-peer>.

sistematizatzen laguntzea; edo/eta kontakizuna sortzen eta transferentzia sustatzen laguntzea.

